

Hitzatzea

Klasikoak, mugarik gabeko literatura

SEVE CALLEJA

(1998ko azaroaren 27an DEIAn argitaratua)



Otto Ubberichde

Zergatik irakurri klasikoak?

Ez dago esan beharrik kultura unibertsala ezagutzeko biderik aproposena barneko kultura ezagutzea dela. Literaturaren arloan, esate baterako, gaurko eta hemengo idazleek idatzitako obretatik mundu zabaleraino hel gaitzke, beren eskutik, alegia, haiek gu baino lehenago joan baitira urrutira. Hortaz, esan dezakegu ondo aukeratutako liburua eskutan, mundu guztian zehar bidaia gaitzkeela. Ez dugu ahortzi behar idazlea primerako bidaiaria dela, primerako gidaria.

Hitza



Doré

Aintzina Jokin Zaitetik, *Atzerri, euskeleerri* izeneko liburua kaleratu zuenean, H. W. Logfellow-en *Evangeline or a tale of Arcadie* jatorrizko liburura eraman gintuen, haren moldaketa egin baitzuen euskaldunoi begira. Gauza bera egin omen zuen 1929an Legaldi goitizenaren egileak –J. A. Larrakoetxea– Grimm anaien ipuinak alemanieratik itzuli zituenean, hango pertsonaiei hemengo izenak eta itxura emanaz, eta, hurbilagora etorritik, Antero Apaolazaren *Patxiko Txerren* jatorrizko nobela moldatuz antzeko gauza egin du, besteak beste, Anjel Lertxundik. Hau da, beren obra idazterakoan batzuk eta besteak moldatzaile izan ziren. Eta beraiek bezala, idazle gehienak tradizioaren moldatzaile dira, konturatu gabe akaso, beren obrak sortzerakoan. Baina horretan datza kultura. Eta baita heziketa ere.



Doré

Heziketa zera dela esan daiteke: zibilizazioarekin bat egiteko gizabanakoak bere dituen koalitaten hobekuntza. Beraz, zibilizazioak heziketa adierazten du nolabait. Bizitzan zehar umeentzat ezezik helduentzat ere heziketa bideratzeko, literatura dugu bide apropos eta interesgarrienetako bat: edozein liburutan idazleak bere mundua erakusten digula esan daiteke, hau da, zer nolako harremana mantentzen duen inguruko errealitatearekin. Beraz, edozein idazleren obraren irakurketarekin batera irakurleak gizaseme baten bizipen multzoa bereganatzen du. Esan dezakegu libururaren irakurketan idazleak munduaz duen ikuspegiaren eta irakurlearen artean harreman bat sortzen dela; eta harreman hau hezitzailea da.

Irakurketa heziketa izan dadin, irakurlea aktiboki parte hartzera eta irakurtzen duen istorioarekin harremanetan jartzera bultzatu behar du aipatu irakurketak, eta hau asko erraztuko du alde aurretiko prestakuntza literarioak. Umetan entzuten ditugun ipuinetan oinarritu eta heziketa prozesuan horiek landuz iritsiko gara egile klasikoaren eta berrien lanak irakurtzera.

Klasikoaren obrak irakurtzeak eta ezagutzeak heziketa prozesuan zehar badu zerikusirik esandakoarekin, klasikoak iraganeko lekuko eta tradizioaren bozeramaile dira-eta. Gainera kontuan hartu behar dugu klasiko hitzak etimologikoki «klasean irakurtzen dena» adierazten digula, hau da, zenbait egile eta obra eredu hartu behar direla.

Gazteentzako klasikoen zenbait euskal moldaketa.

Gure gaztaroan erdaldunok bageneukan klasikoek bilduma eta moldaketa ugari: Biblioteca Sopena, Clásicos Ebro edota Austral, besteak beste. Geroago hasi ziren agertzen «Tus libros» –Anaya–, «Trébol» –Gaviota–, «Clásicos Edelvives», «Aula de Literatura» –Vicens Vives– etab. Euskaldunek ere izan dituzte ahalegin batzuk: «Kulixka» –Itzaropena–, «Gazteriarren Literatur Altxorrak» –1974-77 bitartean Cinsaren eskutik sortutako bilduma–, Robinson, Sandokan edota Tom Sawyer-en abenturekin gozatzeko, edo Gordailu taldearen itzulpenak –*Moby Dick*, *Indieta Beltza*, *Lurraren biotzeraino...*–. Aurrerago, gazteentzako itzulpenei dagokienez, «Kimu» –Gero–, «Tximista» –Hordago– eta «Itzul» –Elkar– bildumak izan dira garrantzitsuenak, Melvillek, Salgarik, Vernek edota Stevensonek zer kontatzen diguten ezagutarazteko.

Gaurkoen artean, «Literatura Unibertsala» –Ibaizabal– da Defoe, Kipling, Conrad, Steinbeck, Duras, ... euskaraz irakurri ahal izateko ahaleginik handiena. Eta, izenburu solteak badira ere, hor ditugu Erein –Michel Tournier, Pedro Antonio de Alarcón, La Fontaine, Musset– eta Pamielaren ahaleginak –Perrault, Carroll– besteak beste. Honek esan nahi du mundu zabaleko idazleen obrak irakurtzeko aukera badutela gazte euskaldunek. Eta ez bakarrik, pen-



Tenniel

tsa litekeen bezala, bertoko idazleen hutsunea betetzeko, bai baitago bertoko idazle ugari eta gero eta jatorrizko liburu gehiago lor ditzakegu liburudendetan. Hala eta guztiz ere, hortxe dauzkagu klasikoek itzulpen eta bilduma berriak, esaterako Durangoko Azokarako «*Klasikoen Kutxa*» izeneko bilduma jarriko da martxan, Elkarlanean-en eskutik Dickens, Verne edota Logfellow-ren obrak ezagutzera emateko, edota euskal literaturaren antologia bat.

Azken finean, egile klasikoek obrak irakurtzea ez da literatura unibertsalera hurbiltzea bakarrik, urruneko leku eta garaietan nola sentitu eta pentsatu izan duten jakitea ere bada, hau da, mugarik gabeko literatura –eta kultura– ezagutzea.



Otto Ubbertoforde

~ Hitzatzea ~

Nola erabili klasikoak ikasgelan?

Beste kontu bat da klasikoak ikasgeletan nola erabiltzen diren. Irakasleen jarrerari dagokionez, batzuek mantentzen omen dute obra klasikoak baino ez irakurtaraztearen ohitura, haien ustez garrantzi handia dutelako; beste batzuen ustez, ordea, gazteen irakurketarako zaletasuna bultzatzeko, gaurko egileen obrak dira egokienak, honen ondorioz klasikoak ikasleengandik urruntzen dituzte. Mutur batetik bestera jotzea da hori, ikasgeletan –sukaldaritza-eskolan bezalatsu– denetik dastatu eta ezagutu behar baita. Baina gaurko liburu produkzioan aukeratzekoan, zorionez, denetik dago. Eta, dirudienez, halatsu ikastetxeetan irakasleei dagokienean.

Gaur egun, adibidez, euskara ikasteko bilduma ugari dago bai eskoletan bai euskaltegietan: *Irakurmendi*–Elkarlanean–, *Noski*–Gero–, *Mikolleta*–Desclée–, *Xirimiri*–Tinkoketa–... Bilduma horietan egile klasikoen obrak euskaraz moldatzen eta laburtzen dira atalez atal, beste zenbait hizkuntzatan egiten den bezala. Egia da horrela benetakoa obrak hondatu egiten direla, baina helburua zein den kontuan hartu behar da: euskara –edo beste edozein hizkuntza– ikastea, helburu glotodidaktikoa, alegia. Hala ere, ikasle



Otto Ubbelohde

asko horrela heltzen da lehendabizi *Altxor uhar-tea* edota Poeren beldur-ipuinak ezagutzera. Gogoan dut nola behin ikasle bat hurbildu zitzaidan *Tom Sawyer-en abenturak* izenburuko bertsio osoa eskatzera, halako bilduma batean bertsio laburra ezagutu ondoren. Horrelako kasuetan gazteentzako klasikoen moldaketak literatura unibertsaleko «otartekoak» baino ez direla esan liteke. Testuliburuetan ere, zati literarioak agertzen direnean, antzeko gauza gertatzen da: nolabait «pintxo» literarioak-edo dira. Agian, gerorako gosea eragiten dute zatitxo horiek, dena den, hor oso garrantzi handikoa da irakaslearen jarrera.



Doré